



Jarraibidea, Ogasun eta Finantzetako sailburuordearena, 2012ko urriaren 17koa, publizitate-kanpainak Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzan jakinarazteko epeei buruzkoa.

Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeen gaineko eskumena Ekonomia eta Ogasun Sailari dagokio. Zehazki, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren 5. eta 11. artikuluetan ezarritakoaren arabera, sailburuordetza honi dagokio borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen gaineko legeak bete daitezela ziurtatzea, beharrezko neurriak hartuta eta mendeko zerbitzu eta organoen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko jarraibideak emanda.

Euskadiko Gizarte-Emendiotarako Borondatezko Erakundeen Baterakundeak gai bat planteatu du BGAEen inguruan. Zehazki, erakunde horien publizitate-kanpainei dagozkien epeak hobeto zehatz ditzala eskatu dio Finantza Zuzendaritzari.

Egokitzat jo da jarraibide honetan ezartzea nola borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen sektoreak hala organo ikuskatzaileak eta horien zerbitzuek aplikatu beharreko irizpideak.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuan ezarritako eskumenei jarraituz, Euskadiko Gizarte-Emendiotarako Borondatezko Erakundeen Baterakundeak planteatutako gaiari buruzko irizpideak antolatzeko, honako instrukzio hau ematen da:

Lehenengoa: borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 13.6 eta 7 artikuluan ezartzen denez, publizitate oro, hedatu baino lehenago, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari jakinarazi behar zaio. Hedabidearen arabera publizitate-kanpainetarako egitasmoek zintzo islatuko dituzte iragarkiak, testuak, kartelak, liburuxkak, irrati-iragarkiak, filmazioak edo beste edozein bide edo

euskarri. Halaber, egitasmo horiek bere lurralde-eremua zehaztuko dute, baita beraien iraunaldia ere.

Artikulu horren zazpigarren atalean ezartzen denez, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak (egungo Ekonomia eta Ogasun Sailak) artikulu honetan ezarritakoa betetzen ez duen publizitatea zuzentzeko edo kentzeko eska diezaieke BGAEei; horrek ez du eragotziko indarreko araei jarraituz erakunde horiei eska dakiekeen erantzukizuna. Horren haritik, BGAEek dagokion publizitate-euskarria bidali beharko dute, kanpaina hasi baino hogeitaz egun lehenago, gutxienez. Baldin eta bidalitako publizitateak erakunde horien publizitateari buruz erkidegoan dagoen araudia betetzen ez badu, Finantza Zuzendaritzak publizitatea BGAEei buruzko legedira egokitzeko zer aldaketa egin behar den jakinaraziko du, kanpaina hasi baino bost egun lehenago, gutxienez.

Bigarrena: Jakinarazpen ondorioetarako, jarraibide hau Ekonomia eta Ogasun Sailaren web-orrialdean jarriko da, eta Euskadiko Gizarte-Emendiotarako Borondatezko Erakundeen Baterakundeari jakinaraziko zaio.

Hirugarrena: Jarraibide honek sinatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak; nolana ere, jakinarazpenak egin beharko dira, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 17a.

Izpta.: M^a. Manuela Escribano Riego
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUORDEA